


Bizitzari topa, azken agurrean

Igande arratsaldean Goiburun hileta-zibila antolatu zuten, Iñaki Gurrutxaga Lopez "Gurru"ren omenez. Jendetza elkartu zen, herrian oso maitatua zen seinale. / 11



Andoainen bainua debekatzeko karteak buruzko adierazpenak eskaini ditu Izagirre zinegotziak / 5



Quebrantahuesos lasterketa ezagunean bigarren helmugaratu zen Leire Etxezarreta andoaindarra / 13



Altxor ezkutua, hesituta

Auzokalteko zubi ingurutik abiatu eta Urnietako mugetaraino iristen den paraje aski basati bezain zoragarria da Ubaran bailara / 2-3

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK



Burdina taldeko Xabier Arruti, Joseba Urrutia, Jose Luis Garcia, Gonzalo Artzeo, Jose Alcantara, Joxe Ramon Berrondo eta Javi Padilla, lanean Ubaran bailaran. Auzokalteko karobietako bat, Burdinak berriki berreskuratu ostean.

Xabier Lasa ANDOAIN

Ubaran bailara aipatzerakoan, zera hartzen da kontuan: Auzokalteko zubian eta Bordazulo baserrian hasi eta Urnieta ukitzen duten Urrillondo, Eltzamendiko Zentrala, Mantxonea eta Benezi basetxeen inguruetan amaitzen den ingurune natural hori dena, Leizotz auzo barrenean beti.

Ubaran erreka, paraje natural horren bizkarrezurra dela esan genezake, eta horrexegatik hartzen du bailarak izen berbera. Hiru kilometro ditu guztira errekek, eta bailara horretan barrena bere lehenbiziko 2,5 kilometroak egin ostean, Leitzaran ibaira (Olazar baserri parean) isurtzen ditu bere urak.

Hitzaren etimologiaren arabera, u(r) eta (h)aran(a)ren batura da izena (iturria: USA-BIAGA, Amaia: *Andoaingo Toponimia*. Euskaltzaindia, 1993). Bailararen ezaugarrietakoa den uraren ugaritasunari egiten dio erreferentzia, izan ere han-hemenka sortzen diren iturri eta errekatxoekin hazten da Ubaran erreka. Hain zuzen, Urnietako lursailetan jaiotzen diren Benturaiturriko erreka, Errekagorri erreka, Pagotxabalko erreka, Aranbegiko erreka eta Belabieta errekearekin hornitzen da Eltzamendiko erreka, eta azkenhori Andoaingo lursailetan sartzen denean Ubarango erreka bilakatzen da. Hortik aurrera, besteak beste, Urrillondoko erreka, Santiagoko erreka Prasazabal, Sorgintzulo erreka, Trikuetako erreka, Txurrukako erreka eta

Ubaran bailara, paraje ezezagun bezain xarmagarria

Auzokalteko zubitik abiatu eta Urnietako mugetaraino iristen den paraje aski basati bezain zoragarri hori izendatzen da Ubaran bailara. Balio ekologikoez gain, aintzinako hainbat ondare historikoko arrastoak topa daitezke bertan

Baltzungo iturritik jasotzen du ur emari franko.

Ubaran errekaen indarraren erakusgarri izan daiteke honako datua: bere hiru kilometroko ibilbidean, irina ekoizteko bost errotek funtzionatu zuten iraganean, Berridi, Errotazar, Mantxonea, Goiko-Errota eta Errota Txiki (iturria: Leitzaran.net web orria. Egilea: Xabier Cabezón).

Jarduera industrial aberatseko bailara, iraganean

Txanka Arruti Burdina taldeko kideak adierazi duenez, begiak jarrita dauzkate bailara horretan,

eta hainbat ekimen burutuko dituzte hurrengo hiru-lau urtetan.

Egun, bailara nahiko baso itxia da eta iluna izan arren, aitzinean, kontuan hartzeko moduko giza bizitza eta jarduera industrialak eduki zuen, Arrutiren esanetan. “Ondare historikotzat jo daitez-

ONDARE HISTORIKOTZAT JO DAITEZKEEN ARRASTO UGARI DAGO BAILARAN

keen makina bat eraikuntza eta arrasto daude bailara horretan: burdinola, ur-presa, zubia, errota, karobiak, bordak, baserriak... Guztiek ere garbi adierazten digute iraganean, nekazaritzaz eta abeltzantzaz gain, egundoko dinamika industrialak funtzionatu zuela erreka alde batera zein bestera. Egiaz, mugimendu edo trafikoa handia izango zuen bailara zeharkatzen zuen gurdibideak; Marizulotik eta Urnietatik nahiz Leitzarango bidean barrena garraituko zen hor ekoizten zen material guztia”.

Gaurkoz, honako eraikuntzen aurriak topa daitezke, nahiz huntzak, laharrak eta sastrakak janda egon: makina bat karobi (Auzokalten hiru, Ubarango zubi ondoan hiru, Urrillondon bat...), Txingurriko parajeen zerura irekitako meategia, Florentina Borda (Erdikobordako borda), Artolaborda eta Maxartegiko baserriak, Presazabalgo presa (gehi honen kanala 230 metrokoa), Errotazar errota... Jada desagertuta dira, gutxienik: Presazabalgo burniola, Meaka eta Maxarraenea baserriak eta Aierbe borda. Bestalde, gizakientzat bizitoki dira egun, honako baserri eta etxeak: Auzokalte, Bordazulo, Kaskabeltza, Ubaranzelai berri, Urrillondo, Urnietako Zentrala (Eltzamendi zentrala), Mantxonea eta Benezi.

Indusketa lanak Txingurri

Burdinako taldeko kideek, oraingoz, Auzokalte inguruan kokatzen diren hiru karobi berreskuratu eta txukundu dituzte, Ubarango zubia sendotu dute, eta Txingurri izeneko parajeen kokatzen den aire zabaleko meategian indusketa lanak burutzen ari dira.

“Artxiboetan topatutako 1888ko agiri bati esker, badakigu behin baino gehiagotan ustiatu izan zutela meategia. Bertan topatu diren mineral hondakinen arabera, limonita (burdin oxidoa), eta hematites parda edo oligistoa (oxido ferrikoa) atera izan ziren bertatik. Gainera, gertu, meategiaren zerbitzura egon zitekeen labe baten arrastoak ere aurkitu ditugu”.

Ubaran, bailara basati eta misterioitsua

Eusko Jaurlaritzak, 1995eko urrian, Leitzaran Biotopo Babestu gisa izendatu zuen, aintzat hartuta Leitzaran ibaiaren eta bere inguruko basoaren biodibertsitatearen kalitatea.

EAEko natura babesteko sortutako babes-figura horrek, Nafarroako mugatik (Plazaolako presatik) Otietara bitarteko eremua hartzen du. Aldi berean, izendapenak Leitzaran ibaia ez ezik Ubaran eta Maloko ibaiadarrak ere babestu beharrekotzat jotzen ditu, Plazaolako trenbidearekin gurutzatzen diren tokiraino. Deklarazioak, zehazki, Leitzaran ibaiaren eta Malo eta Ubaran erreken ubide naturalen bost metroko zabalerak –alde bakoitzean–, babesten ditu; besteak beste, eraikuntza jarduerak galarazten ditu.

Ubaran iraganean jarduera industrial handiko eremua izan bazen ere, naturak (era guztietako begetazio eta zuhaiztia, alegia) beretzat hartu du paraje hori egun, eta azken hamarkadetan, bakar-bakarrik Leitzaran goitik behera ezagutzen duten mendizale eta naturzaleentzat bilakatu da bisita-leku.

Ondo dakite horiek bertan txango gozagarriak egin daitezkeela, Ubaran errearen presentzia eta bere ur emariaren hotsa gertu-gertu dituztela. Ziu-rrerrik, Andoain eta Urnieta udalerriek ez daukate batzen dituen bide politagorik, Leitzaran bailara eta Marizulo-Besabi parajea batzen dituen naturbide zoragarri, basati eta misterioitsu hori baino.

Bailara basati horretan barrena murgiltzeko orduan, Leitzarandik abiatzen diren oinezkoak, Ubaran errekan kontrako ur-lasterrean segituz, ezkerretik zein eskuinetik doazen bidezidordoz baliatu izan dira. Bi bidezidor horiek, beren azken zatian, Marizulotik jaisten den porlanazko bidearekin bat egiten dute; hori bai, eskuineko bidezidorra hautatuz gero, Errotazar errotaren parera iristean, erreka gurutzatu behar izaten da.

Ubaran, bailara hesitua

Azken aldian, zorritzarek, nekez egin daitezke bi ibilbide horiek osorik, hesiak jarri baitituzte. Egurrezko egur-zutoinez eta txarrantxaz osatutako hesiak (hankapasorik gabekoak) topa-



Ubaran bailara, Andoaingo kaletegi eta toponimoen mapatik aterata. UDALA



Hesiak Ubaran erreka ondoan, eta atzean, Errotazar errota. Bere arkua egoera onean kontserbatzen da. AIURRI

tuko ditu oinezkoak Ubaran errearen alde batean zein beste Presazabalgo presaren parean; jabego pribatuko lur-eremu bat mugarritzatzeko eta gizakiak oinez egiteko ibilbidea oztopa-

tzeko asmoz jarri dira. Hesiaren jartzaileak argi utzi du nondik nora luzatzen den bere lur saila, eta gainera, ez duela nahi inork zeharka dezan hortik, iraganean egin izan den eran.

Bi bidezidorrak mozturik egonda, Errotazar errotara iristeko geratzen den alternatiba bakarra, edo bikoitza hobe esanda, Ubaran bailarako goi parteetatik abiatzen diren bi bideetatik

jaistea behar luke izan. Bata, Mizpiradi sagardotegia eta Pardaki baserria batzen dituen mendi-pistan joanda Meaka izeneko puntutik ateratzen den bidetik behera doana da; bestea, berriz, Baltzun baserria eta Usabelartzako zohikaztegia batzen dituen Lapurtxulo mendi-pistatik behera doana.

Hain zuzen ere, Andoaingo Udalbatzak landa eremuko herri bideen sarearen inbentarioari behin betiko onespene eman zion 2020ko maiatzaren 28an, eta bertan definitu zituen 98 herri bideetatik, 64. zenbakidunak (osotara 1.800 metro dituen Basajaundegi-Errotazar herribidea) Errotazarreko errotara jaisteko bi bide horiek batean biltzen ditu.

Nolanahi ere, lehengora itzultzen gara; izan ere, 64. zenbaki-ko Basajaundegi-Errotazar herribidetik abiatuz gero, sasiak eta sastrakak ez direnean, berriro ere egurrezko egur-zutoinez eta txarrantxaz osatutako hesiak, jarri berriak, dira oinezkoari galarazten diotenak inguru horietan bakean ibiltzea.

POSTONTZIA

ANDOAINGO UDALA ANDOAIN

Udalak bilera irekia deitu du A-15 N-1 errepidea hobetzeko proiektua lantzeko

Uztailaren amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak Andoaingo Udalean aurkeztu zuen, streaming bidez, A-15 eta N-1 errepideen arteko lotura hobetzeko eta N-1 errepidetik Sorabillako A-15era sartzeko alternatiben azterketa. Aurkezpen horren ondorioz, herriaren eta elkar

askok adierazi dizkigute beren kezka. Horregatik, Udalak bilera bat antolatuko du irailaren 29an, 18:00etan, Basteroko ekitaldi-aretoan, eragindako pertsona eta elkarte guztiek beren kezka eta/edo proposamenak helarazi ahal izan diezazkiguten, Udalak aintzat har ditzan.

Bilerara joan ahal izateko eta COVID-19 egoerak eskatzen dituen segurtasun-neurriak eta edukiera kontrolatzeko neurriak bermatu ahal izateko, alde aurretik eman beharko da izena.

Helbide eta telefono-zenbaki hauen bidez eman daiteke izena:

- alkatetza@andoain.eus
- 943 300 830. Luzapena: 315.

Kontuan hartuta planteatutako trazadurak udalerriko hainbat eremuri eragiten diela, eta horien guztien bertaratzea bermatu ahal izateko, horietako bakoitzaren ordezkaritza bat bertaratzea gomendatzen dugu.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN (2021.09.18)

Denon parte hartzea beharrezkoa izango da

Uztaila amaieran, Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Bide Azpiegituretako Foru Diputatuak egin zuen aurkezpene eta gero esan genuen proposamen horrek zapo gazia utzi zuela guregan. Andoainek urte asko daramatza N-1aren ondorio negatiboak pairatzen (kutsadura, zaratak, auto ilarak, herriaren zatiketa...).

Horrekin batera ere, urteak daramatzagu alternatibak noiz iritsi zain. Gezurak ere esan dizkigute bide horretan. Baina badirudi, oraingoan proiektu zehatz bat garatu nahi duela Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektu hau egitearen arrazoi nagusia, auto pilaketak saihestea da. Berriz ere, zaratak edo gure herriak pairatzen dituen ondorio negatiboak bigarren mailan utzi eta auto pilaketak saihesteko asmoz ekin diote lanari.

Hori dela eta, oso garrantzitsua izango da Andoaingo Udalaren jarrera gai honetan. Gure herriaren garapenean eragina izango duen gai batetaz ari gara. Une honetan, gure herriak duen erronkarik handienetakoa da, handiena ez bada, hauxe da.

Hori dela eta, EH Bilduk uste du ez dela alderdikieriaz jokatzeko unea. Herri bezala denon artean erabaki behar dugu zer den onena gure herriaren etorkizunerako. Horregatik proposamen bat egin dugu. Gai honek

dituen ertz guztietaz eztabaidatzeko, eta Udalaren posizioa finkatzeko, Hirigintzako batzordea maiztasun finko batekin elkartzea (hamabost egunetik behin adibidez) eta bilera hauek landuko diren gaiak egutegi batean adostea, denok behar bezala prestatu eta eztabaidatu ahal izateko.

Horrekin batera, garrantzitsua litzateke, bilera hauetan herriaren parte hartzea bultzatzea. Jadanik antolatuak dauden Mimendi-Bazkardo edo Sorabilla-Errotagaingo auzotarrak, Alejandro Calonjekoak, interesa izan dezaketen beste eragileak..., finean, estrategikoa den gai honetan, ekarpena egin dezaketen sektoreen partehartzea sustatzea.

Bien bitartean, eta proiektu definitiboa egin eta obra egin bitarte denbora asko pasako dela aurreikusiz, modu probisionalean pantaila akustikoak jartzea eskatu behar du Andoaingo Udalak.

Hori da gure proposamena, eta espero dugu denok dugun arduratik, gaiak merezi duen jarrerarekin aritzea.

**"EH BILDUK
USTE DU
EZ DELA
ALDERDIKERIAZ
JOKATZEKO UNEA"**

POSTONTZIA

IMANOL GOENAGA, EAJ-PNV ANDOAIN (2021.09.20)

Irtenbidea emateko garaia

Arazo handiek, tamaina bereko konponbideak behar izaten dituzte. Ezin uka daiteke Andoaingo herriak eta berau inguratzen duten intentsitate altuko errepide-sareak eragin edo inpaktu zuzena dutela andoaindarrengan. Arazo historikoa bilakatu da, pasadako trafikoa urtez urteko hazkundearen lekuko bilakatu gara, egunero 30.000 ibilgailuk gurutzatzen dute udalerria. Aldiz, saiakera ugari egin diren arren, hamarkadaz hamarkada konponbideak ez du agenda politikoan egikaritzeko behar besteko indar topatu.

Zorionez, agintaldi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunen lehen lerroan kokatu du Andoain. A-15 eta N-1 errepideek sortzen duten trafikoa korapiloa askatu nahi da, eta honek sortutako zarata eta mugikortasun arazoei erantzuna bilatu nahi zaie. Diputazioak ia adierazi bezala, prozesu zabala ipini du martxan, fase eta berme askorekin: alternatiben azterketa, trazaduaren definizioa eta proiektua osatzea. Lan egutegi zehatz bat osatu da, gainerako inplikatuak eta erakundeen partaidetza bermatzen duena. Horren adibide, uztailaren udalbatzan egindako aurkezpen publikoa, lehen fasean egindako lan teknikoaren emaitza elkarbanatuz. Berriki ingurumen inpaktuen ebaluazio txostena audientzia publikoan ipini da, eta Udalak hobekuntza ekarpen ezberdinak egin ditu.

Batzuk behin eta berriz kontrako azpimarratzen saiatzen badi-

ra ere, hasieratik sentsibiltate berezia izan da kaltetutako bizi-lagun taldeen edo elkarte antolatuaren iritziak eta eskaerak zuzenean ezagutzeko. Horren lekuko elkar truketutako eskutitzak edo bilera presentzialak, bai Goikoplazako herriko etxean, bai eta Donostia-ko Foru ofizinetan eginak.

Bada, ez omen da aski EH Bildurentzat. Ez omen da behar besteko informaziorik eman, ez omen dira partaidetzarako gutxieneko baldintzak bermatzen, eta alderdikieriaz jokatzeko ari omen gara. Beste behin ere, dilatazioaren jokoan sartu nahi dute. Konponbideak lan egutegi eta jomuga zehatza duenean, eta behingoz andoaindarrentzat proiektu egingarri bat osatzen ari denean, aitzakien gurpilean bira eta bira.

Ahalik eta modu eraginkorrean herriaren arazoak konpontzea du xede politikak, nahiz eta askotan horretarako gai ez izan. Asmatzen denean eta akatsak egiten direnean onartzen jakitea funtsezkoa da. Ezinbestekoa deritzot zintzotasunez jardutea. Horregatik asaldatzen nau horrenbeste EH Bildu alderdikeria traketsez egiten ari den desinformazio kanpainak. Urrun geratu dira andoaindarren interesak, helburua bestelakoa da, arerio politikoa desgastatzea.

Berdin du zer eta nola. Hementekara jo eta 2010ean Bide Azpiegituretako diputatu zen Eneko Goiaren errekorreak aterako dituzte, egikaritu ezin daitezkeen proiektu zaharkituak lozorrotik

berpiztuz, edo inoiz alde bozkatu ez zuten Andoaingo 2011ako Plan Orokorren defentsa sutsua egingo dute. Aldiz, amnesia larria dute eta ahaztu dute 2015etik aurrera Larraitx Ugarte errepide azpiegituren buru zela egindako kudeaketa traketse. Ahaztu dute euro bakar bat ere ez zutela bideratu Andoainera. Leitzarango autobidean "txikizioari stop" defendatzetik eta ingurugiroarekiko sentsibiltate hain fina izatetik, Belkoain tunel bikoitz baten bidez alderik alde gurutzatzearen alde agertu ziren udalbatzan orain ez horrenbeste.

Badirudi, oraindik ez dutela argi zeren alde dauden, zein den andoaindarrei eskaini nahi dieten herri-proiektua. Ez dute argi Belkoain gurutzatzearen alde jarraitzen duten ala ez, ez dute argi N-1 kontsolidatzea eta hobetzearen alde dauden. Gauza bakarra dute argi: min ematen die beraiek ez diren beste inork lidergoa hartu izanak, eta horretarako iritzi publikoa populismoz jositako ideiez desinformatu eta aztoratu behar bada, hala egingo dute. Denbora behar omen dute barne hausnarketarako. Denbora entzuketara prozesu partehartzaile gehiago antolatzeke. Denbora, arazo historiko honen konponbidea are eta gehiago dilatatzeke.

Beste behin ere, ezker abertzalearen helburu taktikoak eta andoaindarren interes estrategikoak ez datoz bat. Ez dira PNVren edo sozialisten kontra oldartzen ari, andoaindar guztion aurka baizik. Ekintzetara pasatzeko unea da. Ez da aitzakietarako unea. Ez dezagun aukera galdu.

"Gaizki-ulertua saihesteko, ahalik eta lasterren zuzendu zen akatsa"

MARIJOSE IZAGIRRE ANDOAINGO ALKATE-ORDEA

Olazar eta Otieta gunetara bainua hartzera zihoazen udatarrek ezustekoa jaso zuten abuztuaren amaiera aldera. Kartel batzuetan bainua debekatuta zegoela adierazten zen. Andoaingo Udalak kartel horiek estali eta gaizki-ulertua izan zela dio

Mikel Arberas ANDOAIN

Zergatik jarri ziren seinaleak Olazar eta Otieta parke inguruetan? Arrazoi teknikoak zeintzuk izan ziren?

Ingurune naturalaren kudeaketa konplexua da, erakunde ezberdinek eskuduntza ezberdinak dituzte. Zehazki Udalari dagokio bainurako egokituta ez dauden eremuetan, jendeari jakinaraztea edo ohartaraztea "kontrolrik gabeko bainu eremuak" direla, bide batez, jakinarazteko norberaren ardura dela eremu horietan bainua hartzea, besteak beste ez baitago ikuskaritzarik edo zaintzarik. Ekainaren amaieran gazte bati gertaturiko ezbeharrak, eta presaz jokatu nahi izatearekin, gaizki-ulertua eman zen. Horren ondorioz, seinale okerrak ipini ziren.

Zein izan zen atzera egin eta kartel horiek estaltzearen arrazoiak?

Gaizki-ulertua saihesteko, ahalik eta lasterren zuzendu zen akatsa. Gure asmoa kartel hauek zuzentzea da. Balioan jarritz eremuaren izaera, eta bainu kontrolrik ez dagoela argi utziz.



Marijose Izagirre, Andoaingo alkate-ordea. AIURRI

Oraindik eguraldi ona egiten duela medio, bainu denboraldia ez da amaitu; jendea bainatu daiteke kartela zegoen gunetan?

Kartel hori estalita dago, honenbestez bertan agertzen den araua ez da aplikagarria. Bainatu daiteke, orain arte bezala. Ez da aldetaririk izango. Norberak bere ardurapean egin beharko du, kontrolatu gabeko eremua delako. Hauxe da, behin zuzenduta, kartelean azalduko dena.



Otietan eta Olazarren jarritako seinaleak, ondoren estali egin zituzten.

POSTONTZIA

ELA SINDIKATUA ANDOAIN

Etkez etxeko laguntza zerbitzuko langileek akordioa itxi dute

Langileek lan baldintzak hobetzea lortu dute enpresarekin lotutako akordioari esker. Ondorioz, bertan behera utzi dute hurrengo 9 egunetarako iragarritako greba.

Andoaingo etkez etxeko zerbitzuan lan egiten duten Eulen sociosanitarios enpresako 25 langileek 5 eguneko greba egin ondoren lortu dute hitzarmen berri baterako akordioa. Langileek, non batzordearen gehien-oso ELA sindikatuarena den, oso positibotzat jo dute akordioa. Besteak beste, urtero soldatak KPIaren gainetik aurreikusten den igoera, ordainsari eta osagarrietan beste igoera batzuk eta baita gaixotasunagatik kon-

plementoetan hobekuntzak. Sinatutako hitzarmenak 2021-2024 urteetarako indarraldia izango du eta atzeraeragina 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du.

Beste behin ere azpimarratu behar dugu akordioak lortzeko mobilizazio eta grebak duten garrantzia, publikoa izan behar duen ezinbesteko zerbitzu pribatatu bat duintzeko.

SINATUTAKO HITZARMENAK 2021-2024 URTEETARAKO INDARRALDIA DU



Andoaingo langileak akordioa lortu ostean. AIURRI

Balorazioa

ANDOAINGO UDALA ANDOAIN

Andoaingo Udala "pozik agertu da ELZko langileek Eulen sociosanitarios enpresarekin lan baldintzak hobetzeko akordioa lortu dutelako. Udalarentzat, Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) funtsezko zerbitzua da gure udalerriko adineko eta/edo mendeko pertsonen ongizaterako, eta horren bidez 105 pertsona inguru artatzen dira. Udalak dio hainbat bilera egin direla bi aldeekin, lan-gatazkan duten erantzukizunetik abiatuta, konponbidea ahalik eta azkarren bilatzeko. Horregatik, pozik dago greba amaitu delako, hobetzeko helburuak bete direlako. Udalak apustu argia eta irmoa egiten jarraituko du gure adinekoek jasotzen duten zerbitzua kalitatezkoa izan dadin, eskaerei kasu eginez, ia berehala, itxaron-zerrendarik sortu gabe".

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoaingo. Tel.: 943 300 732. andoaingo@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocio Arias (Andoaingo), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goieta Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

ERROITZ:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Taldeko argazkia atera zuten, egitasmoarekin bat zetozela erakusteko. UDALA

Indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa adostu dute

Ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek bat egin dute egitasmoarekin

Erredakzioa URNIETA

Euskal Herrian 111 emakume eta 11 adingabe erail dituzte, erakunde publikoak datuak biltzen hasi zirenetik. Egoeraren larritasuna ikusita, protokoloa aho batez adostu eta onartu dute Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek (EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE). Hona hemen Urnietako Udalak protokoloaren harira azalduak: "Komunikazio instituzionala funtsezkoa da emakumeen aurka egiten diren indarkeria-mota

eta adierazpenak ikusarazteko prozesuan. Ukaezina da indarkeria horien egiturazko eta hedapeneko izaerari, estereotipoak eta aurreiritziak ezabatzeari eta biktimak errespetatuko dituen eta emakumeenganako indarkeriazko agerpenik onartuko ez duen gizarte bat eraikitzeari buruz gizarte zabaltzen eta sensibilizatzen laguntzeko duen gaitasuna. Beraz, protokoloak komunikazioa eta sensibilizazioa modu zehatz eta egokian egiteko ere balioko du".

Bizilagun berriei ongi etorria emango diete

Urnietako Udalak ekitaldia antolatu du, ostegun honetarako. 18:00tan izango da, Lekaion

Erredakzioa URNIETA

"Herrian bizi garen guztiok osatzen dugu Urnietako bizilagunak, bai Urnietan jaioak, bai inguruko herrietatik edo estatuko beste leku batzuetatik etorritakoak, eta bai munduko hainbat tokitatik iritsitakoak". Abiapuntu hori hartuta, udalak ekitaldia antolatu du. Aurretik, Udalak gutun bana igorri die Urnietara hurbildu diren bizilagun berriei. Udalak ekitaldian parte hartzea eta elkar ezagutzera animatzen ditu bizilagun berriak. Aukera baliatuko dute, bide batez, Udalaren zerbitzuen berri emateko.

UDALAK EKITALDIA ZERBITZUEN BERRI EMATEKO AUKERA BALIATUKO DU



Neurri berria iragartzeko seinaleztapenak ipini dituzte. UDALA

30 kilometro orduko gehienezko abiadura udalerrri osoan

DGTk neurri berria maiatzaren 1etik aurrera indarrean jartzeko dekretua argitaratu zuen

Erredakzioa URNIETA

Udalak arreta eta erantzukizuna eskatzen die herritarrei, araudia errespetatzeko eta egokitzapen prozesua ahalik eta errazena izan dadin: "Neurri hori bat dator Urnietako Udalaren filosofiarekin, oinezkoiei eta garraio-bide jasangarriei lehentasuna emango dien herri baterantz eboluzionatzen joatea baita helburua, eta neurri horrekin Urnietako gizatiarrago, jasangarriago eta seguruago baterantz aurrera egitea bultzatzen da".

Neurria maiatzaren 1ean ezarri zen Espainian, DGTren eskutik. Dekretu horren arabera, ibilgailuen zirkulazio muga orduko 30 kilometrokoa da, noranzko bakoitzeko errei bakarrek kaleetan.

UDALAK NEURRI BERRIA ERRESPETATZEKO DEIA EGIN DIE HERRITARREI

Euskara, bidelagun onenaren eskutik

Matrikulazioa sustatzeko kanpainak geldialdia egin zuen Urnietan, joan zen asteazkenean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Iragan ikasturtea zail samarra izan bazen ere, indarrez ekin diote irailari Urnietako AEK euskaltegian. Hala, urritik hasita, euskara ikasteko aukera

izango dute herritarrek, "bidelagun onenaren" eskutik. Bizidekar batean Euskal Herria gurutzatzen dabil erakundea, matrikulazio-kanpainak iraun bitartean. Hori horrela, asteaz-

kenean (irailak 22) egin zuen geldialdia Urnietan. Egurditik hasita, hainbat hitzordu antolatu zituzten bizidekarra kalera ateratzeko, baita ikusgarritasuna emateko ere.

Matrikulazioa

Urnietako AEKn bertan egin daiteke, Errekalde kaleko 11n duten egoitzan. Eskaintza zabaldua dute, aukeran.

Telefono zenbakia: 662 338 747.

E-posta: urnieta@aek.eus.



Asteazken eguerdian Urnietako aldean airtu ziren kanpaina egiten. AIURRI



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiko, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.

www.aiurri.eus



Edurne Gallo. AIURRI

Edurne Gallo, Berdintasun teknikaria

"Oso pozik nago, eta gogotsu batez ere gai guzti hauek herrian martxan jartzeko baina baita artikulazio feminista sustatzeko ere. Denon artean gizarte berdinzaleago bat eratze, bide batez. Gaurkoa iragarri aurretik ekainean aurreko edizioetan parte hartu zuten emakumeekin brain storming edo ideia zaparrada egin genuen, eta oso gai interesgarriak atera ziren. Poza ematen du parte hartu duten emakumeek interesa eta grina badutela erakutsi digutelako. Eta lanean jarraitzeko eta formakuntzan eta ahalduzko prozesuan jarraitzeko asmoa badutelako".



Luke Goñi zinegotzia eta Edurne Gallo Berdintasun teknikaria, Lourdes Iriondo parkean. AIURRI

Jabekuntza Eskola martxan jarri du Udalak

*Emakumeetzako Jabekuntza Eskolak maila pertsonalean zein kolektiboan emakumeen konfidantza eta autonomia bultzatzeko helburua du. Urrian hasita tailerrak, hitzaldiak eta kultur jarduerak antolatuko dituzte

Erredakzioa URNIETA

Egitasmo berria martxan jarri du Udalak, oraingo honetan berdintasunaren alorrekoa. Ageraldia baliatu zuten langile berria aurkezteko. Izan ere, Luke Goñi Martinez Berdintasun sailko zinegotziak eta Edurne Gallo Santamaria Berdintasun teknikariak eskaini zuten prentsaurrekoa.

Hauxe Goñiren aurkezpena: "Apirilean hasi zen lanean Udalean, eta bere figurarekin aurrerapauso kualitatibo bat eman-go dugu Udalak garatzen dituen politika eta ekintzetan genero ikuspegia barneratzeko orduan, eta aldaketa hori somatzen da Jabekuntza Eskolen egitarauan, eta baita, eman diogun esanahian ere".

Urnietako Udalak *emakumeen Jabekuntza Eskola eskainiko du, "herriko emakumeen ahalduzko prozesuak laguntzen jarraitzeko helburuz, baina oraingoan, lanketa sakonagoa eta osoagoa" eginez.

Udazkenera begira ekitaldi-sorta antolatu du Udalak, eta ia horietan guztietan zaintza zerbitzua eskainiko dute.



Irantzu Varela. EITB

Lehen hitzordua, tailerra

"Feminismoa, tratuen onak eta bizirauteko teknikak"

- Edukia: Feminismoak azken mendean izan dituen ekarpenak ezagutaraziko dira.
- Irakasleak: Aitziber Aginagalde Bilbao eta Irantzu Varela Urrestizala.
- Egutegia: urriak 6 -abenduak 15.
- Eguna: asteartea.
- Ordua: 18:00-20:00.
- Lekua: Lekaio.
- Hizkuntza: Gaztelania.
- Matrikula: 10 euro.
- Izen-ematea: irailak 24 - urriak 4.
- Webgunea: urnieta.eus/eu/berdintasuna.
- Bertan: 07:30-11:00 eta 11:30-14:30.

Zaintza zerbitzua eskainiko du Udalak.



- **Irailaren 27an hasita denboraldi berria.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Sari gozoa zozkatuko dugu, astero-astero.**



Andoni Urbistondo URNIETA

Egunak airean joaten zaizkio Miguel Ramosi (Mike esaten diote lagunek). 2015-16an, bizitzaz gozatzen ari zela, hausnartu, eta bere bizitzan gustuko zuen ogibideren bat bilatu behar zuela erabaki zuen. Eta tatuajeen mundua aukeratu zuen. Autodidakta, kostata bizimodu txukuna izatera iritsi da azken urte eta erdian, burujabe izateraino. Donostiako Tatuart dendan ari da tatuaje egile. 20 bat tatuaje ditu berak, eta menpekotasuna sortzen omen du. Pertsonak nortasuna irabazten omen du tatuajeekin, halako zigilu berezia lortu. Goiz batean erantzun ditu galderak, eta arratsean, argazki sesioa bete, bezero bat tatuatzeko duen birtartean.

Nor da Miguel Ramos?

28 urteko urnietarra, eta tatuajeak egiten ditut.

Nola sartu zinen mundu horretan?

Beno, ikasketak osatu nituen, baina jabetu nintzen bide horretatik ez nuela aurrera egiten. Betidanik gustatu izan zait marraztea, formatua bat edo bestea izan. Tatuaje bat baneukan egin, eta horrela hasi nintzen. Youtube-eko bideo tutorialak ikusten hasi nintzen, liburuak irakurtzen, eta modu autodidaktan ikasi nuen, txapuzak egiten pixkanaka. Ikastaro batzuk badaude, baina ez ikasketa formalak, eta ikastaro horietan oso oinarritzkoak diren gauzak bakarrik erakusten dizkizute.


Zenbat denbora pasa zen gorputz batean zure lehen tatuajea egite-rako?

Ba ikasteko epearekin, urtebete inguru. Zerri azalean, edo frutan aritzen zara, entseatzen. Gero nire azalean hasi nintzen tatuajeak egiten, eta azkenerako lagunekin. Jardutea da ikasteko modurik errazena, eta nik hala egin nuen. Akatsak egin, akats horiek ez errepikatzen saiatu, eta hobetu. Lehen tatuajea ez zen erraza izan. Ez dakizu makina nola muntatu, ez dakizu ezer egiten. Beste eredu batzuk ikusten dituzu, eta eskarmentua hartu. Frustrazio uneak ohikoak izan ziren garai hartan, ez baituzu nahi beste, edo nahi bezain azkar hobetzen. Blokeatu egiten zara. Bezeroak ere eskas, eta gurpil zoro batean sartzen zara. Bezerorik gabe ezin duzu hobetu, eta hobetzen ez baduzu, ez duzu bezerorik lortzen.

“Tatuajeak halako mendekotasuna sortzen du; ondo sentiarazten zaitu”

MIGUEL RAMOS TATUAJE EGILEA

Duela lau urte bere bizitzan gogoko zuen zerbait egiten hasi behar zuela erabaki zuen urnietarrak (28 urte). Donostiako Tatuart estudioan egiten du lan



Urnietarra Donostiako Amara auzoko Arco gunean dagoen Tatuart estudioan ari da lanean. AIURRI

Zein izan zen zure lehen tatuajea?

Nire gorputzean egin nuen. Urduri nengoen. 15 bat minutu pasa nituen hasteko, beldurtuta. Baina tira, gaizki egitekotan, nire azala zen. Tatuaje kaxkar bat egin nuen, baina egin nuen. Hor hasi zen dena. Ondoren lagunek jakin zuten, haiei marrazkiak egin... Horrela hasi zen, 2016ko abuztua-iraila aldera. Ahoz-ahoz zabaldu zen kontua, eta jende gehiagori egin nizkion tatuajeak. Hasieran ezagunak, ondoren ezezagunak. Gurasoen etxea zen nire estudioa. Baze-kiten gustuko lana nuela, eta ez zidaten arazorik jarri. Etxean jende ezezaguna sartzen hasi nintzen, deserosoa zen, eta kitto esan nuen, estudio batera joan eta norbaitekin ondo ikasteko.

Zenbat kobratzen zenuen orduan tatuaje bategatik?

Gutxi, 30 bat euro. Materiala ordaintzeko, irabazirik ez. Hasieran tatuaje txiki bat egiteko ordu erdi pasa behar nuen, jarri, ez jarri, lasaitu eta beste. Orain 10 minutuan egiten dut, eta dena doa azkarrago.

Donostiara joan zinen.

Bai, Donostiara eta Amasa-Villabonara. Egindako tatuaje guztien argazkiak egin, eta CV bat osatu nuen, estudioetan uzteko. Donostiako estudio batetik deitu zidaten, Gros auzoan. Oso txikia zen, eta sei hilabete egin nituen, ikasteko nahiko. Ondoren Kraken Tatto dendara joan nintzen, Egia auzora. Ordurako tatuaje egile, dagoeneko. 2018a izango zen. Ikasteko toki egokia da. Amasa-Villabonatik ere deitu zidaten. Batean hiru egun, bestean bi... Lana egunero, astelehenetik larunbatera. Estudioz aldatu naiz, Tatuart estudioa Donostiako Amara auzoan, Arco gunean. 21 urte daramatzate martxan, eta estudio ezaguna da. Oso gustura nago, maisu onak ditut.

Zein lan izaera duzu?

Autonomia naiz, eta tatuaje bakoitzagatik portzentaje bat eskuratzen dut. Nik bezero batzuk ditut, eurek beste batzuk ematen dizkirate, eta zerrrenda bat osatzen dugu.

Eta zenbat tatuaje egiten duzu astean?

Batez beste 15 bat tatuaje astero, aste onenetan 24 egin izan ditut. Tamainaren arabera. Txiki bat egitea, esaldi bat, hizki bat, erraza da. Ordu erdian egiten duzu. Handiak, baina, ordu asko dira.



Gogoko duen zaletasuna ogibide bilakatu du Miguel Ramos urnietarrak. AIURRI

Egunean bat egin dezakezu gehie-
nez, 6-7 ordu behar direlako.

Zenbat balio du tatuaje batek?

Pieza bakoitzeko kobratzen dugu. Txiki bat 80 eurotik aurrera. Eta handia, bizkarrean, edo besoan izan, ezberdina da. Bezeroarekin hitz egiten da. 300-500 bat euro, baina tatuajea konplikatu bada, gehiago.

Bezeroak askatasun osoa du, aukeratzeko, edo zuk aholkatzen diezu?

Normalean ideia jakin batekin etortzen dira, interneten ikusi duten argazkiren batekin, eta nik aholkuak ematen dizkiet. Horrela jarriko nuke, edo beste modu honetan... Tatuaje berezia, bakarria bilatzen dugu, ez internet-en ikusi duen hori, jende guztiak berbera edukiko bailuke bestela. Baten batek aholkua eskatzen badu, bere nahien arabera funtzionatzen dugu. Esaterako, niri garezurrak gustatzen zaizkit, baina jendea ez. Euren gustuak zein diren galdetzen diegu, eta horren baitan proposamenak egin.

Zergatik erakartzen du hainbeste tatuajeak?

Norberak ondo ikusten du bere burua tatuaje batekin. Bat egin eta bestea egiten du jendeak. Bakarria egin duen jende gutxi ezagutzen dut. Damutzen direnak ere badaude, baina etxean bere kabuz aritu den jendea da. Tatuajeak nortasuna, izateko modua erakusten du, arropa berria jartzen duzunean bezala. Plus bat da, eta bizitza osorako. Istorio bat dauka atzetik, kontatu dezakezuna... Tatuajea luxu bat da, kapritxo bat, bitxi bat erostea bezala. Ez duzu behar, baina erosi egiten duzu. Halako menpekotasuna sortzen duela esango nuke.

Bizitza osorako dela esan duzu. Egia da ezin dela kendu?

Ez, kendu daiteke, baina laserrekin egin behar da, sesio asko hartu, mingarria da... Tatuajea egitea baino gehiago. Cover bat egin dezakezu, tatuaje berri bat zaharraren gainean, baina ez da berri bat egiten baduzu bezala geratzen.

Lehen tatuajeak bazeukan halako irudi txarra jendartean. Orain hori desagertu egin da.

Bai, bai, erabat. 88 urteko aitona bati egin izan diot tatuaje bat, pentsa. Tatuajeak edukitzea gizartea normaldu egin dela esango nuke, eta egun arraroa tatuajeak ez dituen norbait ikustea da.

Nola egiten da tatuaje bat?

Nik lehen paperean marrazten nuen dena, baina orain tabletan marrazten dut. Inprimatu, kalko bat egin, tamaina kalkulatu, azalean itsatsi, eta kalko mania bat balitz bezala, kalkoa egiten hasi. Gidak daukazu erreferentzi gisa, eta tatuajea erreparasatzen hasten zara. Tatuajea egiten ari zarenean bezeroak lasai egon behar du, ze mina egiten du. Belaunak, saihe-tsak eta burua dira gune sentikorrenak.

Zer sentitzen du tatuajea hartzen duen bezeroak?

Gauza ezberdinak. Nire kasuan azala erreko balitzait bezala sentitzen dut. Jasateko modukoa

da, ia inork ez du martxa egiten tatuaje erdian. Mina egiten du, eta nekatu samar buka dezakezu, baina bizpahiru egunera mina desagertu egiten da. Tatuajea bukatuta plastiko bat jartzen duzu, babesteko, eta bi astetan halako krema bat eman behar du bezeroak azalean. Hori egin eta listo. Tatuajea hor geratzen da betirako.

Zein kolore erabiltzen duzu gehien?

Gipuzkoan beltza dela esango nuke. Gero Bilbo aldean-eta kolore gehiago erabiltzen da. Ez dakit arrazoiak, akaso gure nortasuna da.

Zenbat tatuaje dituzu zuk gorputzean?

20.

Eta zein duzu gustukoak?

Animalia asko ditut, emakumeak, nire tatuajeak egiteko makina... Ez dut arrazoi berezirik, gustatu egiten zaidalako jartzen dut. Eskatu dizuten ze tatuajerekin harritu, poztu zara?

Ba nik neuk egindako diseinuren bat, akaso. Poz berezia ematen dizu horrek. Bada ideia bat ema-

ten dizuna, suge bat garezur batetik ateratzen, adibidez, baina zure marrazki bat eskatzea da politena.

Eta arraroena?

Aurpegian marihuana hosto bat marrazteko eskatu izan didate, baina ezezkoa eman diet, marrazki horrek pertsona horren etorkizuna baldintzatuko baitu erabat betirako. Ez dute inon kontratatuko lana egiteko. Eskuan tatuajea egitea ere ez da erraza.

Askatasuna duzu ezezkoa emateko?

Bai, badago kontu etikoa hor, ezetz esateko. Buruan edo eskuan egiten diren marrazkiak... Batzuetan alferrik da, jende hori ideiak garbi dituela etortzen delako guregana, eta zuk egiten ez badiozu beste norbaitek egingo diolako.

Herriko jende askori egin diezu tatuajeren bat? Ezaguna zara da-goeneko herrian?

Baietz esango nuke, jendeak badakiela tatuajeak egiten ditudala. Herri txikia da Urnieta. Tatuaje dezente egin ditut Urnietan, asko. Bada Urnietako jendea Donostiako estudioara agertu, ni ikusi, eta orduan jabetzen dena ni naizela tatuaje egilea.

Bizimodua ateratzen duzu tatuajeak egiten?

Bai, baina lana ondo doakidalako orain. Lanik gabe, dena bezala, zaila. Ni orain urte eta erdi hasi naiz nire kabuz bizi ahal izaten, lehen hiru urtetan ezin izan nuen. Zortekoa sentitzen naiz 28 urterekin burujabe izateaz, lehiakortasuna handia delako. Donostian estudio asko daude, eta pribilegiatua sentitzen naiz.

Urnietan estudioren bat jartzeko asmorik baduzu, edo momentuz ez?

Ez, oraingoz ez. Donostiako estudioan gustura nago. Zer ikasi asko daukat oraindik, nire estudioa irekitzeko, eta Urnietan estudioa jartzea loteriaren antzeko zerbait izango litzateke.

Miguel Ramos, Instagram: @attic9tattoo.

"15 BAT TATUAJE EGITEN DITUT ASTERO, ASTE ONENETAN 24 EGITERA IRITSI NAIZ"

"TATUAJEAK IZATEKO MODUA ERAKUSTEN DU. ARROPA BERRIA JARTZEN DUZUNEAN BEZALA"

"88 URTEKO AITON BATI EGITEN IZAN DIOT TATUAJE BAT. NORMALDU EGITEN DELA ESANGO NUKE"

"GIPUZKOAN KOLORE BELTZA NAGUSI DA. BILBO ALDEAN-ETA KOLORE GEHIAGO ERABILTZEN DA"

"BEZEROAK NIK NEUK EGINDAKO DISEINUREN BAT ESKATZEAK POZ BEREZIA EMATEN DU"



Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Postontzia




Aktualitatea



Bideoak



Oharrak



Egunean egunekoa




Argazki-bildumak



Kirol albisteak



Agenda



Koronabirusa



Jone Larrañaga aurkezle lanetan aritu zen. Alboan Iker Ipintza "Gurru"ren iloba, bertsoan. AIURRI

Bizitzari topa

Azken agurra eskaini zioten igandean Iñaki Gurrutxaga Lopez "Gurru"ri, Goiburuko Txertotako belazeetan. Oso hunkigarria izan zen ekitaldia, eta bertan andoaindarraren nortasunaren ikurrak azaleratu ziren: umorea, alaitasuna, elkartasuna eta bizipoza

Xabier Lasa, Mikel Arberas ANDOAIN 53 urterekin joan bada ere, andoaindar askorengan utzi du arrastoa. Eta igandeaz geroztik haien guztien bihotzean geratu dela esan daiteke. Ibilbide oparoa egin zuen Andoaingo kirol eta gizarte bizitzan, eta horrek herrikide askorekin lotura estua izatera eraman zion. Igandean malkoak isurtzeko aukera izan zen, baina baita irri egiteko eta hainbat eta hainbat une on gogora ekartzeko ere.

Senideez gain, dozenaka lagun elkartu zen Goiburuko Txertotako belazeetara. Eguraldi ederreko arratsaldean, omenaldi ekitaldi gogoangarria izan zen.

Ilobaren hiru bertso hunkigarri

Iker Ipintza ilobak hiru bertso abestu zituen osabaren omenez. Hona lehenbiziko bertsoa: "Nola esan behar dugu/hemen modu azkarrean/Gurru, gu guztiok gaude/zuri bihotzez eskerrean/Goiburun elkartu gera/ta agurtu beharrean/Jende asko dago ezker/eskuin atze zein aurrean/Eta momentu guztitan/polit zein

gogorrean/hortxe agertzen zinen zu/betiko irriparrean/Elkarrekin bizitako/denboraren plazerrean/Ezin da eskerrak eman/zuri bertso bakarrean".

Azkenean topa egiteko gonbitea egin zuen hirugarrengoa bertsoan: "Bertsoekin bukatzeko/azkena behar dut bota/Begira egon zaigu/Ducados beltza piztuta/Zenbat zerbeza gaude/zukin hartzera ohituta/resaka bat baino gehio/zure kontura hartuta/Bizitza bakarra da-ta/zuk bai duzula disfruta/zenun bizitzeko grina/Adibidetzat jarrita/gustokoa zuen bezala/altxa denok zuen kopa/berak merezi du eta/Gurrugatik egin topa".

Izaera umoretsu eta zirikatzailea

Lagun asko zituen Gurruk, eta horietako bat, Maika Del Olmo, guztien izenean mintzatu zen. Gurruaren izaera zirikatzailea islatu zezakeen pasadizoa hartu zuen gogoan, kontatuz, nola zoo batean, Gurruk eta tigre batek elkarrekin komunikazio berezia eduki zutela, bata bestearen

keinuak errepikatuz. "Momentu onak dauzkagu gogoratzeko Gurruarekin; txarrik ez daukagu", esan zuen ekitaldia aurkeztu zuen Jone Larrañagak. Gurru-rentzat eta bere ingurukoentzat Santa Krutz jaiekin lotzen dira bizipen on eta gozagarri horietako batzuk, eta ekitaldian ez zen Santa Krutz Martxa doinua falta izan, Joxema Setien txistulariaren eskutik. "Doinu hau entzunda piztuko da festarako, nonahi egonda ere: ez zuen asko behar izaten!" esan zuen Larrañagak.

Ekitaldian Gurrutxagaren eskuzabaltasuna ere ekarri zuten gogora. "Altxa eskua, ea zenbaiti konpondu dizuen kotoxea" bota zuen galdera Larrañagak halako batean, eta berehala, makina batek altxatu zuten eskua.

Futbolaria, eragilea eta Peña baten protagonista

Euskalduna izan zen Gurrutxagaren bihotzeko taldea. Bertan hainbat urtetan jokalaria izna ostean, azken urtetan zuzenda-

Euskaldunaren kolorea bihotzean



Atzoko eta gaurko zuzendaritza taldeko kideak. AIURRI

Euskalduna bihotzean Bihotz urdina zuen Gurrutxagak, eta Peña izan zuen jokalaria bakarra da klubean. Jokalari, aita eta eragile modura aritu zen Euskaldunan.



Peñakideak "Gurru"ren ereserkia zena abestuz agertu ziren jendaurrera. AIURRI

"Peña Gurrutxaga"ko kideak Euskaldunako jokalaria zenean, haren lagunak peña bat sortu zuten. Aski ezaguna izan zen garai batean, eta garai hura biziberritu zuten omenaldira hurbildutako askok.

ritza batzordeko kide izan zen. Euskaldunako egungo batzordekideek ere tarte hartu zuten ekitaldian, Gurruari eskerrak emateko, bandera urdina eskuetan zutela. Guztien izenean, Salba Paradak hartu zuen hitza. "Erretiratu egingo naiz esan zenigun ostegunean; Bixkairi keinua egin, eta biak zigarroa erretzera irten zineten bilera gelatik. Eztabaidarik sutsuenean ere, aurretik zein ondoren, beti azaldu zinen prest ekarpenak egiteko, klubaren alde lan egiteko; hori bai, umorea bide-

lagun beti. Pribilegioa izan da berarekin partekatu izana klubaren aldeko proiektua".

Gurrutxaga Peñako kideak ere irten ziren jendaurrera, azken agurreko ekitaldian. Eta nola? Futbol zelaietara ahotan beti eraman zuten abestia abestuz: "En Gurrutxaga siempre reina la alegría, en Gurrutxaga siempre reina el buen humor... aunque nos gane el Kilimon". Abestiaren letrak garbi azaltzen du Peñak makina bat futbol zelaietan zabaldu zuen filosofia.

Dozenaka lagun bihotzean

La Polla Records taldearen *No somos nada* kantua megafoniatik zabalduz amaitu zen ekitaldia. Ez gara ezer dio kantu ezagunak. Baina "Gurru" handia izatera iritsi zen, dozenaka lagun bihotzean geratu baita.

SD EUSKALDUNA IZAN DA GURRUTXAGAREN BIHOTZ TALDEA. BIHOTZ URDINA ZUEN ANDOAINDARRAK



Eindhoven hiriko kaleetan nabarmendu ziren txuriurdinak, Europa Leagueko lehen partidan. TWITTER

Andoaindar errealzale ugari Eindhoven hirian

FUTBOLA Errealzaleak Europa Leagueko zozketaren zain geratu ziren abuztu amaieran, euren taldeak non jokatu zuten jakiteko. Horietako batzuek, andoaindarrek eta futbolzale amorratuak, azkar batean hartu zituzten Herbehereetara joateko hegaldiak

Mikel Arberas ANDOAIN

Euskaldunak nonahi daudela esaten denean, ez da hitzontzikeri hutsa; euskaldunek leku batetik bestera mugitzeko ohitura dute, arrazoa edozein dela ere. Errealzaleak ez dira gutxiago, ez baita lehenengo aldia ehunka kilometro mugitzen direla beren bihotzeko talde txuri-urdina ikusteko.

Abuztuaren 27an futbolzaleek Europa League txapelketako zozketa adi-adi jarraitu zuten, aurkariak zeintzuk izango ziren jakiteko; ia urtero bezala, talde zaila egokitu zaio talde txuri-urdinari: Monaco, PSV eta Sturm. Dena den, hori ez zen oztopo izan gipuzkoar eta andoaindar ugari hegaldia hartu eta Eindhoven hirian lur hartzeko.

Opor usaineko asteburua

Oporraldi modukoa izan da hara joan diren errealzaleena, ostegunean hegaldia hartu eta igandean itzuli. Bitartean, turismo apur bat, giroaz gozatu eta talde

donostiarrak animatu. Gauzak horrela, hirira iritsi bezain laster, gauzak apartamentuan edo hotelean utzi eta terrazetara joan ziren zale asko, baita andoaindarrak ere. Arkaitz Lasarte herrikidearen esanetan, “hirigunera joan eta tabernetara gerturatu ginen. Giro errealzale polita zegoen, PSVko ultrek giroa harrotu zuten arte. Bertako poliziak segituan eraman zituzten eta berriro ere giro ona gailendu zen”. Antza, egoera kontrolpean edukitzeko, Eindhoveneko poliziarekin elkarlanean aritu zen Ertzaintza, bertako zaleen harri-durapean. Gainera, nabarmendu dute, inork ez zuela musukoa erabiltzen. Egoera epidemiologikoa guztiz ezberdina da, eta, beraz, jendearen jarrera ere. Langileek, poliziek eta herritarrek ez zuten maskararik jartzen; beno, soilik garraio publikoa erabiltzeko, eta ez guztiak.

Partida hasi baino apur bat lehenago, tabernak atzean utzi eta PSVren Philips estadiorako

bidea hartu zuten, Errealeko kantuak abestuz eta segurtasunagatik zaldi gaineke poliziak inguruan zituztela. Giro ona eta talde txuri-urdina ikusteko gogo bizia sumatzen zen kaleetan. Hala ere, partidua hasi eta 10. minutuan baizik ezin izan zuten sartu, segurtasuna aitzaki, eta covid ziurtagiri ezaguna eskatu zien bakoitzari. Norgehiagoka polita, giro bikaina errealzaleen artean eta berdinketa garrantzitsua eskuratu zuten; baina, zoritxarrez, berriro ere segurtasunagatik orduerdi berandu irten ziren estadiotik. Horiek horrela, askok trenan galdu zuten eta zailtasunak eduki zituzten itzultzeko. Esanak esan, bidaiak aberasgarria izan zen gipuzkoarrek eta andoaindarrek egin zutena. Turismoa eta futbola uztartuta bestelako astebukaera bat eduki zuten, eta gertakariak gertakari itzultzeko nahia adierazi dute. Izan ere, arestian aipatu bezala, euskaldunak nonahi aurkitzen dira, ez baitira geldirik egotekoak.



EUSKALDUNA

Gurrutxaga gogoan

FUTBOLA Asteburuko partida guztietan Euskalduna taldeak gogoan izan zuten berriki hil den Iñaki Gurrutxaga Lopez zuzendaritza taldeko kidea. Minutuko isilunea egiteaz gain, lazo beltza jarri zuten jokalariek. Aski maitea zen klubean, jokalariek gisa nahiz zuzendaritza taldeko kide gisa ibilbide oparoa egin baitzuten.



ANDOAINGO

Zuriarrainen garaipena

TXIRRINDULARITZA Izaro Zuriarrain andoaindarrak irabazi zuen Gopegin ospatutako Arabako itzuliko lehen etapa, irailaren 18an ospatu zena. Denboraldi polita osatzen ari da txirrindularia, uztailan emakumezkoen Euskal Herria torneooko kadete mailako proba irabazi zuelako Larrabasterran.





Leizaran eskubaloia. LEIZARAN

Denboraldi hasierako bilera deitu du Leizaranek

ESKUBALOIA 19:00tan hasiko da bilera, denboraldi berriko gorabeherak azaltzeko

Erredakzioa URNIETA

Bilera informatiboa arratsaldeko 19:00tan hasiko da, ostiral honetan (irailak 24), Bastero Kulturgunean. Klubarentzat garrantzia handiko bilera da, bertan denboraldi berriko gorabeherak azalduko direlako. Garrantzitsua deritzote bilerara bertaratzeara.

Aurretik, 18:30ean hasita, bazkideen bilera egingo dute Basteroko ekitaldi aretoan. Bazkietza berritzeko aukera baliatuko dute, baita berriak egiteko ere. Aurten bazkide egiten denari kamiseta bat oparituko diote.

Lagunartekoak

- Leizaran-Txingudi: Seniorrak, emakumezkoak. Larunbata, 25. 17:30. Allurralde.
- Leizaran Ernio-Txingudi: Seniorrak, gizonezkoak. Larunbata, 25. 19:00. Allurralde.

Denboraldi hasiera

- Leizaran-Hernani: Jubenilak, mutilak. Larunbata, 25. 10:00. Allurralde.
- Leizaran-Bera Bera: Kadeteak, neskak. Larunbata, 25. 16:00. Allurralde.
- Urnieta-Leizaran: Jubenilak, neskak. Igandea, 26. 11:00. Urnieta.



Leire Etxezarreta Aiertza andoaindarra, proba bezperan Pirinioetan. ETXEZARRETA

Etxezarreta bigarren sailkatu zen Quebrantahuesos proban

TXIRRINDULARITZA Jokin Lizeaga urnietarrak maila bikaina erakutsi zuen, eta aurrealdean ibili zen proba osoan

Erredakzioa ANDOAIN

Leire Etxezarreta Aiertza andoaindarra balentria egin zuen Quebrantahuesos proba ospetsuan, bigarren sailkatu baitzen. Txirrinduzaleentzat estatu mailan dagoen proba ezagunena eta gogorrenetakoa da. 200 kilometroko ibilbidean Piriniotako lau mendate kateatzen baitira: Somport, Marie Blanque, Portalet

eta Hoz de Jaca. 3.875 metroko malda metatua, denera. 4.800 txirrindulariek emana zuten izena, baina euria dela eta soilik 1.900 animatu ziren lasterketan parte hartzera.

Emakumezkoen podiuma:

1. Amaia Urkidi (07:05:36).
2. Leire Etxezarreta (07:13:19).
3. Miren Josune Bikuña (07:24:04).



Jokin Lizeaga, aurreko larunbateko Quebrantahuesos proban. LIZEAGA

LARRAMENDI BAZKUNAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

Bazkunaren dirukontuak eta administrazioa kudeatzeko.

Eskatzen da:

- Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna izatea hitzez zein idatziz.
- Dirukontuak kudeatzeko aplikazio informatikoen erabilera ongi ezagutzea.
- Enpresa kudeaketa eta administrazio ikasketarik egin izana edo amaitzen aritzea.

Baloratuko da:

- Gisa bereko lanetan izandako eskarmentua.
- Eusalgintzarekin lotura duten ekimen edo eginkizunetan lan egin izana.
- MLKB-eko bazkide izatea.
- Ingelesa edo frantseseko ezagutzarik izatea.

Eskaintzen da:

- Astean bost orduko laneguna. Berehala hastekoa.

Aurkezteko epea:

- Curriculumak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da.

Bidali edo aurkeztu zure curriculum-a

harrera@larramendibazkuna.eus

helbidera edo helbide honetara:

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Dr. Huizi kalea, 15-1.

20140 ANDOAIN (656-782-521).



andoainDARRA
euskaraz



Urnieta
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 23**ANDOAIN Filma**

"Vivir dos veces" filma.
Alzheimerraren nazioarteko egunaren harira antolatutako ekitaldia.
18:00, Bastero.

URNIETA Ongi etorri ekimena

Azken hilabeteetan bizitzera etorri diren pertsonen zuzendutako ekitaldia da. Helburua Udal zerbitzu ezberdinak aurkeztea eta elkar ezagutzea da.
18:00, Lekaio.

URNIETA Mendi Tour 2021

Mendi Tourra mendia, abentura eta natura gaien inguruko zinema ziklo ibiltaria Urnietara iritsiko da. Hainbat lan ikusteko aukera izango da
19:00, Sarobe.

URNIETA Ikastaroak

Lekaioko ikastaroetako eskaintza aurkeztu dute: joskintza, marrazketa eta pintura, eskulanak, egur taila.
Informazioa: Urnieta.eus.
Azken eguna: Irailak 28.

ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa.
10-17 urte bitartekoentzat.
Informazioa: Bastero.eus.
Lanak aurkezteko epea: Urriak 8.



"Gazte" ikuskizuna Andoainera iritsiko da. AIURRI

ANDOAIN "Gazte" dantza ikuskizuna

Hika eta Oinkari konpainien arteko lankidetzatik sortutako ikuskizuna da. Dantzariak: Aiora Escudero, Izaskun Aizpurua, Lierni Kamio, Fermin Escudero, Gorka Duran, Amaia Aizpurua, Beñat Monfort, Maitane Irurzun, Aimar Garaiar, Lide Bengoetxea.
Irailak 25, larunbata. 19:00, Goikoplaza

OSTIRALA 24**URNIETA Ekitaldia**

"Egia, justizia, oroimena" izenburupean, lore eskaintza egingo dute Gurutze lantzi gogoan hartuta.
19:30, San Juan plaza.

LARUNBATA 2**ANDOAIN Ekitaldia**

Ortzaikako karobiaren piztuera, Burdina taldearen eskutik. Urriko lehen larunbatean.
12:00, Ortzaika.

Udazkeneko kultur programazioa

Musika emanaldiak, haur ikuskizunak eta Martin Ugalde ardatz duen erakusketa iragarri dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Udazken honetarako egitarauan bi artista nabarmenduko dira. Alde batera utzi gabe Santa Zezilia egunaren baitan egiten den zikloa. Urriaren 14an Marea taldeko abeslari Kutxi Romerok saioa eskainiko du. Aski ezaguna da rock munduan. Eta abenduaren 17an Chica Sobresalto artistak proposamen erakargarria eskainiko du. Ezaguna egin da, bereziki Operacion Triunfo telebista saioan. Santa Zezilia zikloan hiru kontzertu iragarri dituzte. Eta denen artean na-

barmentzen dena Sorotan Bele talde ezaguna gogoan hartuko duen emanaldia da. Gorka Sarriegi eta Urbil Artola taldeak ez dira bakarrik ariko, alboan izango baitute Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda. Azaroaren 20an izango da emanaldi berezia. Biharamunean "Concerto a tempo d'umore" kontzertua eskainiko du Orthemis-Nova Orkestra Cambra Empordà orkestrak. Eta azaroaren 22an Andoaingo Udal Musika Eskolako abesbatzen esku-tik emanaldia izango da.

Haur proposamenak

Urriaren 24an La Tal konpainiaren "Italino Grand Hotel" antzezlanaz gozatzeko aukera izango da. Hotel bateko garbitokian kokatzen da, arropa garbitzeko makinekin jolas dibertigarria proposatuz.


Azaroaren 28an Glu glu konpainiak "Perez sagutxo" pertsonaia ezagunaren inguruan landu duen ikuskizuna eskainiko du. Dantzaz, abestiz eta umorez jositako saioa izango da.

Abenduaren 12an Teatro Paraíso taldeak "Leihoak" antzez-lana eskainiko du.

Sarrerren salmenta

Kutxabanken eta Basteroko leihatilan jarriko dira salgai irailaren 29tik aurrera. Bazkideek irailaren 27an eta 28an erreserbatu ahal izango dituzte sarrerak.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Maixabel**

Ost., 24. 20:30.
Lar., 25. 19:30, 22:00.
Ig., 26. 19:30.
Astel. 27. 19:30, 22:00.

BASTERO**Vivir dos veces**

Ost., 23. 18:00.
Alzheimerraren munduko eguna.

SAROE**Mendi Film**

Ost., 23. 19:00.



SINOPSIS

**Maixabel**

Zuzendaria: Iciar Bollain. **Aktoreak:** Blanca Portillo, Luis Tosar, Urko Olazabal, María Cerezuola, Bruno Sevilla. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 115 minutu.

Zinemaldian eta Basteron ikusgai

Maixabel Lasak ETak hildako Juan Maria Jauregi senarra galdu zuen 2000. urtean. Hamaika urte geroago, ezohiko eskaera bat jaso du: hiltzaileetako batek berarekin hitz egitea eskatu du Langraitzeko espetxean. Aski historia ezaguna da Euskal

Herrian, zinemara eraman dutena. Gainera, filma egun hauetan Donostiako Zinemaldiaren Sekzio Ofizialean lehiatzen ari da. Bitxikeria modura, filmaren eszena batzuk Urnietan grabatu ziren. Otsailean izan zen hori.

MAIZORRI

TXALAPARTA ESKOLA

TXALAPARTA IKASTAROA

2021-22 ikasturtean zehar

Maizorri Txalaparta Eskola (Olagain)

maizorri@gmail.com
677 651 422
Olagain, Auzumendi z/g



Merkatu plaza Makaldegian, larunbatetik aurrera

Astearteroko eta larunbateroko merkatu plaza Makaldegian izango da, aurrerantzean

Erredakzioa ANDOAIN COVID-19 garaian bi eremutan banatu zen Andoaingo merkatu plaza, Makaldegian eta Goikoplazan. Larunbatean hasita merkatu plaza Makaldegian egingo da. Modu horretan, iraganera itzuliko da asteartero eta larunbatero antolatzen den azoka. Udalak, hori bai, "pertsonen arteko distantzia mantentzea eta musukoa erabiltzea ezinbestekoa izaten jarraitzen duela" gogorarazi nahi du. Era berean, jende pilaketak ekiditea aholkatu du. Makaldegiko gune urdina azokarako erabiliko da, lehen egiten zen bezala.

"Zulora" programa berria abiatzeaz da

Gazteak eta Eitb-k programa berria iragarri dute. Sarean zabalduko da, Gaztea-ren zein EitBren bitartekoen bidez, eta Hiru Damatxok ekoitzi du. Lehen atala irailaren 30etik aurrera izango da ikusgai

Erredakzioa ANDOAIN "Zulora" Ane Zuazubiskarrek aurkeztutako eztabaida-saioa da. Pil-pilean dagoen gai bat hartu eta horren bueltan zeresana duten hiru gazte elkartuko ditu, haien kezka eta bizipenak konpartitu ditzaten. Hiru sekzio izango ditu programan:

- Zulotik at. Julen Portillo tiktok-erakusle eta umoregilea kalera aterako da, saioan jorratzen diren gaien inguruan kalean dauden iritziak jasoko asmoz.
- Hesteetatik Larri. Animazio esketx laburra izango da, komunetan dagoen pertsonaia baten burutazioak eta gertakariak jasoko dituenak.



Ane Zuazubiskar "Zulora" programako aurkezlea izango da. AIURRI

• Bota! Atal bakoitzean aditu batek mahainguruan lantzen ari den gaiaren inguruko bere ikuspuntua emango du.

"Matxismoaren sarean", lehena Emakume gazteek sarean bizi dituzten zapalkuntza forma ezberdinak izango dira aztergai. Maialen Arteaga kazetaria, Marina Landa ikerlaria eta Irati Erauskin psikologoa izango dira gonbidatuak. Estibaliz Linares ikerlaria egingo du ekarpen osagarria.

Zulora sare sozialetan jarraitzeko: Instagram: @zulora_ / Twitter: @zulora_ / Facebook: Gaztea.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN **Zorionak Maddi** Maddik irailaren 29an 9 urte beteko ditu, eta primeran ospatuko dugu. Zorionak polita eta milaka muxe potolo. Muaaa!!!



ANDOAIN **Zorionak amatxo!** Amatxok irailaren 22an urteak bete zituen. Uda ederra igaro dugu! Zorionak amatxo, maite zaitugu!!! Etxekoak.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresarako klaseak. 693 692 823 - 665 719 827

Ingeles irakasle diplomatua behar da klaseak emateko English First Certificate azterketa

prestatzeko. 693 692 823

MERKATU
TXIKIAN
PARTE
HARTZEKO

Email: diseinua@aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Tel.: 943 300 732
Bulegora etorrita: Arantzibia 4-5, behe. Andoain

EUSKARA, BIIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzeko. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

EUSKADI, AUZOLANA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

**Adi!
Azken
egunak!**

ERAKUSKETA

ANDOAINGO GUDUA

1837/09/14



Ondarearen Europako Jardunaldiak
Jornadas Europeas del Patrimonio

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru
Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

Babesle:

Antolatzaile:

Sarrera doan
Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 18:30 - 20:00

Larunbatetan: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30

Bisita gidatuak

Izena emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea

